

## BALIOZKO PROPOSAMENA

Gure produktua, Kapatxan aterkia, hainbat berezitasunengatik desberdintzen da beste aterkietatik.

Kapatxanek eskainitako erosotasuna aipagarria dela iruditzen zaigu. Hau, gorputza ez bustitzeko funtsezkoa da. Aterkiak izango duen lonarekin gorputz osoa salba daiteke, hau da, lonak oinetaraino iristen denez, ez da gorputzaren zatiren bat bustita egongo.

Gainera, aipatutako lona ekologikoa da. Gure produktuaren zatirik garrantzitsuena eta produktu berezi bat egiten duena lona da, eta plastiko ez berrerabilgarriaren erabilera mugagabearekin bukatzeko inizatiba hau izan dugu. Beraz, lona plastikozkoa izango da, baina plastiko arrunta izan beharrea, plastiko berrerabilgarria.

Horretaz aparte, aterkiaren punta plastikozkoa ez berrerabilgarria izan beharrea, lona egiteko material bera erabiliko dugu soberakinekin.



Lonaren harira, egindako produktuarengatik ez du pisatuko, horrela edozein momentuan eramateko eroso izango da, trabarik gabe.

Aterki honek segurtasuna eskaintzen du. Ezer ez bustitzeaz aparte, esan bezala, burni-gabeko punta daukan aterkia da. Beraz, horrek istripuak eta arazoak ekiditzen ditu.

Honekin batera, "spray" bat eskaintzen dugu. "Spray" hau, lonan gelditzen diren euri tantak ekiditzen ditu, beraz, jarri baino lehen, "spray" a botatzen da, horrela hobe ikusi ahal izateko ur tantarik gabe.

Ahalik eta atentzio gutxien ematen duen aterkia da, horrela lotsarik gabe atera daiteke edonor kalera aterkiarekin.

Izan ere, gure aterkia tendentzia izango denez bere erosotasunarengatik, geroz eta jende gehiagok erosi eta erabiliko du. Beraz, nahiz eta atentzio gutxi deitzen duen produktua izan, tendentzia izango denez jende askok eramango duen produktua izango dela espero dugu.

Produktuaren prototipoa:

